


...eta **kitto!**


701 zkia. 2009-XII-4

ASTEKARIA

TOKIKOM



Alberto Rementeria "Ondorioak"



KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

KOMUNITATEAK

- Azterketarako proiektuak
- Ekintza-planak, garapen-irratziak
- Jarduera-irratziaren berrantolaketa

AHOLKULARITZA

- Planak
- Laborerik
- Kontabilitateak
- Auzoak

Aurrera egin



 kutxa



ADEGI



gipuzkoa **aurrera**

Aurrera egin, elkarrekin.

Gipuzkoa Aurrera aliantza publiko-erabatuz elkarfanean ari gara,
indarrak eta ahaleginak batuz.

Gipuzkoa guztiaren gainetik dagoelako.



ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKTATZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Maialen Belaustegi, Leire Iturbe,

S. Hernandez eta E. Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Leire Iturbe

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihintza Fernandez

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

FAFO.- Otordua, oturuntza, bankete. "Gaur gabian, fafua dogu Badetenian, hoge lagunek".

FAMAU.- Goraiapatu. "Ardau zuri hau famatzen dabe aittuak".

FANFARRERIXA.- Harrokeria. "Fanfarrerixia ugari erabiltzen dau behintzat tabernan".

ESKUTITZAK

EUSKARAZ EROSO, NONAHI ETA NOIZNAHI SENTITZEKO

Zenbat aldiz gertatu zaigu elkarrizketa bat euskaraz egin nahi izatea eta gazteleraz hitz egiten bukatzea? Zergatik sentitzen gara deseroso horrelako egoeretan? Nola konpondu egoera horiek? Galdera hauek eta beste hainbatek bultzatu ninduten UEUK Markeskoan antolatutako TELP tailerra egitera. "Euskaraz eroso, nonahi eta noiznahi sentitzeko" zioen kurtsuaren izenburuak. Oso lelo tentagarria benetan.

Beste gauza askoren artean, konturatu naiz euskaraz pentsatzen nuena baino gehiagotan hitz egin dezakedala. Eibartarron artean, adibidez, % 70ak euskaraz ulertzen duela diote inkestek, hortaz, askotan nire aurreiritzi eta lotsak dira gazteleraz hitz egitera mugatzen nautenak. Hala eta guztiz ere, ez dut

harroputz sentitu nahi, ezta pasibo ere eta gazteleraz hitz egiten bukatu nire herria den honetan. Errespetuz, nire eskubideari uko egin gabe, gustura sentituz, lehenengo hitza euskaraz egingo dut. Hori da kurtsu honetatik atera dudana ondorioetako bat. Orain, hitzetatik ekintzetara pasatzea tokatzen zait. Hau izango da lanik gogorra, noski baina uste dut esfortzuak merezi duela. Horretarako zuen laguntza ezinbestekoa da. Euskaraz bizi nahi badugu, norbanako bakoitzetik hasita baina guztiok batera ekin behar baitiogu, urratsez-urrats, Euskal Herri euskaldunaren bideari. Leku guztietan eta egoera guztietan euskaraz bizitzeko, ondo sentituz.

AMAGOA GÓMEZ MENDIKUTE

BETI GOGOAN, MIKEL LABOARI

Izarren hautsa egun batean, zilbor hesteak, eten dezagun katea, herria, hizkuntza lurrian lausaturako kristala, Ama, Zure begiek ene maitea, haika mutil, haize hegoa, txoriek, maite ditut gure basterrak, eguzkiak urtzen du, lili bat, bentara noa... Zenbat une

gozo, zenbat afaloste eder, zenbat ausnarketa lanbro artean ibiliz.

Zoriontsu izan zaitezela ametsez betetako loan, Mikel. Beti gogoan, beti lagun.

ANTTON ALDALUR

AKATSAK ZUZENDUZ

Azken aleko atal honetako lehenengo eskutitz biak izenburu desegokiarekin kaleratu genituen. Batek "Arrateballe Bizirik-en kanpaina" behar zuen izan "Hilaren 13ko banaketa"ren orde; eta besteak "El Corte Inglés-aren inguruan" eta ez "Non sartu dira gizonak" plazaratu genuen moduan. Izenburutik aparte, testua eta sinatzaileak zuzenak ziren. Barkamena eskatu nahi dizuegu izenburu oker horiek txarto ulertzeak sortu badizkizue.

ERREDAKZIOA

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Iruñeko elizbarrutia da inguruko etxe agentziarik handiena, hainbeste eraikin bereganatuz. Elizak esan dezake 20 urtez gutxienez erabili dituela eraikinok eta inork ez dizkiola eskatu. Legeak hori baimentzen dio, baina ez da etikoa. Herriko futbol zelaiak 20 urtez erabili duen taldeak hori egingo balu, Udalak lagako zion? Gainera, Elizak mehatxu egin die kontra egin dieten herritarrei, kultura kenduko dutela esanez"

(Jose Mari Esparza, Ondarearen Defentsarako Plataformakoa)

"Esponentzialki aldatu da mundua: telebistak 38 urte pasa zituen 50 milioi laguneko merkatu batera iristen, Internetek lau, eta Facebook-ak bi. IBMko lehendakariak, bere sasoiaren, munduan bost ordenagailuentzako merkaturako zegoela iragarri zuen. Dena dela, zientziari buruz zeozertxo jakin beharko genuke denok; probokatzeko, kultu-ustekoei beti galdetzen diet zer iritzi duten termodinamikaren bigarren printzipioaz"


(Pedro Miguel Etxenike, fisikoa eta zientzialaria)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

a u t u a n

GENERO INDARKERIA

Gipuzkoako Batzar Nagusietako Berdintasun Batzordeko bozeramailea den Ana Rodríguez Fouz sozialistak genero indarkeriarekin lotutako azken kasuen aurrean "nazka" sentitzen duela adierazi du. Bidasoan 36 urteko gizona atxilotu zuten orain egun batzuk, ustez emazteari tratu txarrak eragiteagatik eta adin txikikoak diren seme-alabak delituak egitera eta drogak kontsumitzera bultzatzeagatik. Eibarren, berriz, 15 urteko neska ustez ukitzeagatik beste gizon bat atxilotu zuten.

SANSABURUKO ALDAPA

Aste honetan amaitu dute Sansaburu kaleko 9 eta 11 zenbakien arteko aldapa. 60.000 euroko aurrekontua izan duen lana Madrilgo gobernuak horrelakoetarako emandako planaren barruan garatu da.


ARRATEBALLE BIZIRIK

Hitzaldi-bilera antolatu dute Arrateballe Bizirik taldekoek hilaren 16rako. Portalean izango den batzarra 19.00etan hasiko da eta bertan taldeak bere jardura eta proposamenen berri emateko asmoa du. Besteak beste Errebal, Txonta eta hirigintzarekin lotutako beste batzuk izango dituzte hizpide.

Euskal produktuen denda ...eta kitto!-n

GABONAK GAINEAN DAUZKAGU ETA AURTEN, OLENTZERORENTZAT GUTUNA IDAZTEN LAGUNTZEKO ASMOAREKIN, ...eta kitto! Euskara Elkartek, Iruñeko Karrikiri Euskara Elkartearen laguntzarekin, Gabonetarako katalogo berezia eskaini nahi die herritarrei, euskal produktuak esku-eskura ipinita.

Salgai dauden produktueta eskaintza zabala dago. Besteak beste, euskal abeslari eta taldeen diskak eta DVDak, mahai-jokoak, liburuak, zilarrezko zintzilikarioak, belarrirakoak, toallak, bainu-batak, egurrezko kutxak, kamisetak, eguraldia iragartzeko Pello Zabalaren higrometroa, Argiaren egutegia...



Ume, gazte zein helduentzat opariak daude.

Salgai dauden produktuak zuzenean ikusi eta probatzeko aukera dago, horretarako ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitzan (Urkizu, 11 solairuartea) martxan ipini den erakustokian. Astelehenetik barixakurra egongo da horretarako au-

kerak, goizez (10.00etatik 13.00etara) eta arratsaldez (16.00etatik 20.00etara). Bertara joan eta erosi nahi dena aukeratu, ...eta kitto!-k enkargua egin eta erositakoa jasotzeko moduan dagoenean, erosleari abisatu egingo dio.

**Atxiloketen kontrako manifestazioa**

BARIXAKUAN MANIFESTAZIOA EGIN ZEN EIBARREN, Segi-ren kontrako azken polizia-operazioan atxilotutako gazteei elkartzuna adierazteko asmoarekin. Eguerdian Untzagan kontzentrazioa egin ondoren, herriko kaleak zeharkatu zituen manifestazioak. Arratsaldean beste manifestazio bat egin zen, eguerdikoaren haritik.

Saratsuegi zabalik, bakarrik aparkatzeko

ALKATETZATIK HELARAZITAKO OHARRAREN BITARTEZ aditzera eman dutenez, atzoz geroztik Saratsuegiko biala zabalik dago, baina oraingoz bakarrik automobilak aparkatzeko erabili ahal izango da. Trafikoarentzat noiz zabalduko duten ez dute zehaztu oraindik.

**Aurreikusitako erantzuna El Corte Inglés-ean**

60.000 LAGUN HARTU ZITUEN EL CORTE INGLÉS-EK LEHENENGO HIRU EGUNETAN, merkataritza gunek berak emandako datuen arabera. Aurreko asteko egunean zabaldu zituen ateak denda berriak eta arduradunek "aurreikusitako helburua" bete zela adierazi dute: 15.428 bezero hartu zituen zabalik egon zen 12 orduetan. Bestalde, lehenengo egunean parkinga doan era-

biltzeko aukera eskaini zuten eta 1.165 ibilgailu aparkatu zirela azaldu dute. Asteburuan bezero asko gerturatzea espero zuten merkataritza guneko buruek eta badirudi euren aurreikuspenak bete zirela: hiru egunetan 60.000 bezerotik gora pasatu ziren Ego Gain kaleko dendatik, horietako asko inguruko herrietatik etorritakoak. Besteak beste Durango, Zumarraga, Azkoitia, Donostia, Arrasate,


Tolosa eta Ermuko jendea gerturatu zela adierazi dute. 700 ibilgailurako tokia duen aparkalekutik, berriz, 4.000 bat ibilgailu igaro zen hiru egun horietan zehar. Bestalde, eta Gabonetarako girotzeko asmoarekin, bihar ixotuko dituzte fatxadako argiak, 18.00etan. Ekitaldian Miguel de los Toyos alkateak eta Eduardo Robredo Eibarko El Corte Inglés-eko zuzendariak hartuko dute parte.



20 urte alkohol barik dantzan

SAN ANDRES EGUNEAN, SASOI BETEAN BETE ZITUEN 20 URTE ALKOHOLIK BARIKO DISKOTEKAK. Punto y Aparte diskotekak 1991az geroztik Udalaren diru-laguntza jasotzen dihardu, alkoholik bari-ko saioak eskaintzeko proiektuarekin aurrera egin dezan. Jaione Azkue Udaleko Drogamenpeketasunaren prebentzio-rako teknikariak azaldutakoaren arabera, “urte horietan guztietan alkoholik gabeko diskote-”

karen helburua hauxe izan da: ondo pasatzeak alkoholaren kontsumoarekin zerikusirik ez duela erakusten duen esparrua sortzea. Martxan dagoenetik gazteentzat erreferentea izan da diskoteka”. Alkoholik bari-ko diskoteka saioak zapatuero eskaintzen ditu Punto y Apartek, 17.00etatik 21.00etara. Sarre-rak 3'50 euro balio du eta prezioan edari bat eta hainbat opariren zozketan parte hartzeko aukera sartzen dira.



Ehundik gora apaingarri ipini dituzte kaleetan. / EKHI BELAR

Gabonetako argiak martxa betean

EIBAR MERKATARITZA GUNE IREKIAK (EMGI) HERRIKO KALEAK GABONETARAKO GIROTZEKO ipinitako argiak San Andres bezperaz geroztik martxan daude. Aditzera eman dutenez, herriko kale nagusienetan ehundik gora apaingarri ipini dituzte aurtien eta Errege egunera arte gauero ixotuko dituzte. Horretarako 55.000 euro erabiliiko dituzte.

Elkarteak beste hainbat jarduera garatuko ditu datozen egunetan, denak ere Gabonetarako giroa suspertzeko asmoarekin. Besteak beste barrakak, umeendako jarduerak, Coliseoko ikuskizunetarako txartelak eta hainbat zozketa eskainiko dituzte.

anzorik anzo



Batzoki berria Ego Gain kalean

Eguaztenean Batzoki berriko bulegoa aurkeztu zuten. Ego Gain kalean jasotako eraikin berrian dago (1. zenbakiko 1D solairuan) eta azpian taberna eta jatetxea izango ditu. 85 metro karratuko azalera bulegoa, batzarrak egiteko aretoa, elbarri-tuentzat egokitutako komunak eta 'office' txiki bat daude eta ikus-entzunezko baliabide berriekin hornitu dute. Telefono zenbakia (943120616) eta helbide elektronikoa (pnb-eibar@euskalnet.net) ez dituzte aldatuko.

Datorren astean, berriz, taberna eta jatetxea zabalduko dituzte. Tabernak Ego Gain kaletik izango du sarrera eta 60 lagunendako tokia izango duen jatetxeak, berriz, Isasira emango du. Oro-tara 244 metro karratuko azalera betetzen dute.

Euskadi zein Gipuzkoako Buru Batzarretako ordezkarien parte-hartzea izango duen inaugurazio ekitaldi ofiziala egiteko asmoa badute ere, hilaren 16an alderdikideei egoitza aurkezteko asanblada egingo dute.

Bestalde, Aitor Alberdik zinegotzi kargua lagatzeko aukeraren aurrean, kargua “modu naturalean” beteko litzatekeela adierazi zuten; hau da, zerrendan hurrengo tokian joan zen Jone Telleriak hartuko luke Alberdik lagatako kargua.

eibar kalea

Barrena

Bertan bizi diren lagun kopuruari begira, handienetakoa da behekaldeko kale hau. Karmen kaletik behera, N-634 errepideari jarraituta Azitaineraino doan kaleak hainbat lantegi batzen ditu, besteak beste pegora bakoitien alde handi bana hartzen duten Gabilondo eta lehen Ayra-Durex zena.

Pegora kopurua: 29. Erroldatutakoak: 1.384.





Eibartar ordezkaritza zabala Egunkariaren alde

EGUNKARIAREN ALDEKO EIBARKO HERRI PLATAFORMAK DEITUTA, EGUNKARIAREN ALDEKO TALDE ARGAZKIA ATERA ZEN ZAPATUAN UNTZAGAN. Abenduaren 15ean Espainiako Auzitegi Nazionalak Egunkaria auziko sumario nagusiaren inguruko epaiketari ekingo dio eta, horregatik, beste herri batzuetan egin bezala, Eibarren ere auzipetuei babesa erakutsi eta auzia bera salatzeke asmoarekin, eibartar mordoak bat egin zuen ekimenarekin. Horrez gain, Eibarko Klub Deportiboko Mendi Taldekoek herritik kanpora egin zuten bat aldarrikapenarekin, helarazi dizkiguten argazki bitan ikus daitekeen bezala. Izan ere, aspalditik iragarrita zegoen mendi-irteeran parte hartu zuten mendizalee-

tako askok, baina Untzagan egoteko aukerarik ez izan arren, pankarta zabaldu zuten hainbatek Motxorro mendi-ontorrean eta talde osoak, berriz, Elkoatzen, ibilaldia hasi aurretik egin zuen argazkia.

Manifestaziorako autobus-txartelak

Abenduaren 19rako deitu dute 'Egunkaria Libre' goiburua izango duen manifestazioa. Bilbon izango den manifestaziora joateko autobusak antolatzen dihardute Debabarrenako euskara elkarteek elkarlanean. Eibartik Bilbora joateko autobusak ...eta kitto! Euskara Elkar-teak antolatuko ditu. Txartelak ...eta kitto!-n daude salgai (Ur-kizu, 11 solairuartea), 5 eurotan. Txartelak erosteko azken eguna abenduaren 14a (astele-




Klub Deportiboko mendizaleek Elkoatzen erakutsi zuten Egunkariarekin elkartzuna.

hena) izango da, baina, antolaketak lana errazteko asmoarekin, joateko asmoa dutenei Euskara Elkar-tearekin lehenbailehen harremanetan ipintzeko eskatzen zaie.

Horrez gain, neska zein mutilendako kamisetak (10 euro) eta 10 euroko bonoak ere ...eta kitto!-n erosteko moduan daude.

Epaietako gastuak ordaintzeko 500.000 euro beharko direla aurreikusita dago eta, nahi duenak diruz laguntzeko aukera izan dezan, kontu korranteak zabaldu dituzte Euskadiko Kutxa-n (3035 0060 44 0601133378), Kutxa-n (2101 0001 11 0012515680) eta BBVA-n (0182 0300 19 0201548683).



M^a PAZ ERRAZU GALLASTEGI

(2009ko azaroaren 27an hil zen, 91 urterekin)

*Senideen izenean, eskerrik asko
hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak
bidali dizkiguzuen guztioi.*

**IRTEERA MEZA domekan, hilaren 6an,
San Andres parrokian, 12.00etan hasita.**

Euskal Legebiltzarrian PSE, PP eta UpyDren botueri esker Espaiñiako foball selekziñuak Euskadin partidua jokatzeko eskaeria egittia onartu da. Espaiñiako selekziñuak 1967az geroztik ez dau Euskadin jokatu, baiña hori egiñ ahal izateko foball taldiek egin biharko dabe partidua jasotzeko eskaeria.

Zelan ikusten dozu Espaiñiako selekziñuak Euskadin jokatzia?



FAUSTO MORGADO
62 urte
margolarixa

Ondo begittantzen jata. Nere suiña euskalduna da, beran seme-alabak hamen jaixo dira eta begittantzen jata alkarrekin bizi izan bihar garala hemen, ez dago beste aukerarik. Herrialdien artian mugak zabaltzen dihardue, holan, zertarako itxiko dittugu ba hemen?



TOMASA MARCOS
60 urte
etxeoandria

Nik ondo ikusten dot, noski baietz. Espaiñiako selekziñuak Euskadin jokatzeko erabagixa oso ondo hartuta egongo zala begittantzen jata, izan be, danok dakagu selekziñua ikusteko eskubidia. Ez naiz oso foball zale-tua, baiña ondo daguala begittantzen jata.

TERESA GESALAGA
61 urte
jubilaua

Nik normala ikusten dot Espaiñiako selekziñuak Euskadin jokatzia. Ez dago arazorik, ez dotelako uste arazorik egon biharko zanik. Gaiñera, Espaiñiako selekziñuan euskaldun batzuk be jokutzen dabe eta ez da ezer pasatzen, normala da.



RODOLFO RIAÑO
60 urte
jubilaua

Hobe dala ez jokatzia uste dot, arazuak sahiesteko batez be. Ez dago zertan arazorik egon bihar, baiña badaezpada. Begittantzen jata ez dirala kirola eta politikia nahastu bihar, gaiñera, badagoz euskaldunak Espaiñiako selekziñuan. Halanda be, polemikia sortuko da.



Helbidea
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreetako
1. solairua

EIBAR

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

☎ 943 12 02 00 Fax: 943 12 02 04


1 Kardiologia	8 Pediatria
2 Zirugia	9 Psikiatria
3 Dermatologia	10 Radiologia
4 Dietetika eta Nutrizioa	11 Traumatologia
5 Anlisi Klinikoak	12 Barne Medikuntza
6 Ortodontzia	13 Koloproktologia
7 Otorrinolaringologia	14 Erizaintza
BERRIA: Foto-depilazio Unitatea	15 Zoru pelbikoaren errehabilitazioa

ZERBITZU BERRIA
EIBAR OSASUNDEGIAN

FISIOTERAPIA ESPEZIALIZATUA
ZORU PELBIKOAREN
ERREHABILITAZIOA
UROLOGIA, GINEKOLOGIA,
KOLOPROKTOLOGIA

Gernu inkontinentzia
Haize inkontinentzia
Inkontinentzia fekala
Dispareunia
Postpartoa
Organo pelbikoaren prolapsok
etab.

Deitu ezazu eta informa zaitetz
Eibar Osasundegian!
943 12 02 00



ARGAZKIAK:
Maialen Belaustegi
eta
Silbia Hernandez



Euripian agurtutako sanandresak

Eguraldi politarekin hasi genduan asteburua, baiña San Andres egunian gogotik bota eban eurixa eta, tarteka, txingorra be. Halanda be, erretratuetan ikusi zeinkien moduan, aurreikusita eguazen ekitaldixak aurrera eruateko arazorik ez zan izan.

...eta kitto! Euskara Elkartearen eskutik ospatutako bertso jaialdixak emon zetsan hasieria asteburuari, **BARIXAKU GABIAN**, eta ixa horrekin batera Eibarko Musikari Gaztien Elkartiak antolatutako rock kontzertuan jardun eben Locura Prematura eta Garrapata taldekuak.

ZAPATUAN, barriz, Eibarko Txirriindularien Elkarteak antolatutako VI. Txistorraren Eguna izan zan protagonista. Hamaika ekitaldi garatu ziran Untzaga aldian eta, urteroko moduan, jendiak oso ondo erantzun eban. Antolatzailiak euren esker ona agertu nahi detse gerturatu ziran guztieri eta zozketako sari nagusixa 599 zenbakixarendako izan dala emon dabe aditzera. Ixa beste 100 sari gehixago zozketatu zittuen eta zenbaki sarituak www.clubciclistaeibares.org webgunian ikusteko aukeria dago edo, bestela, alkartiaren egoitzan (Pagaegi, 3) eta hainbat tabernatan zerrendia ikusteko moduan ipiñi dabe. Gabari Aizkora Beltza eta Seguridad Social taldiak ipiñi zetsen musikia.


DOMEKAN Bakillauaren Kofradixako XVI. Kapituluarekin hasi zan programaziñua. Aurtengo ekitaldixan izendatutako kofrade barrixak Enrike Zuazua, Miren Mandiola eta Pedro Palacin izan dira. Bakillau lehiaketia be ospatu zan eta Peña Txinberaren eskutik txahala erre zan, ondoren pintxuetan saltzeko. Kupela taldiak girotu eban jaixa eta gabian Egan taldiaren dantzan jarduteko aukeria izan zan. Eta **SAN ANDRES EGUNIAN** azokia izan zan protagonista. Goiz osuan jende ugari ibilli zan Untzaga eta Txaltxa Zelai artian banatuta egon zan azokan. Aurtengo lehiaketetako irabazliak 13.00a jota jaso zittuen sarixak, Plazara Dantzara hasi baiño piskat aurretik: barazkixetan lehelengo sarixa Elgoibarko Txillarre basarriko Peio Rubiok jaso eban eta bigarrena Markina-Xemeingo Xemein Gain basarriko Alejandro Arrietak; frutetan Mutrikuko Sagarmiñak eruan eban lehelengua eta bigarrena Tomás Maiorarentzat izan zan; ez-tirik onena Barakaldoko Igor Merinorena izan zan eta bigarren aukeratu eben Zornotzako Valentín Llonarena; gaztarik onenari sarixa eskuratzeko lehia gogorragua izan zan, 25 lagunek hartu baitzuten parte, baina epaimahaixak Idiazabalgo Aranburu alkartekueri emon zetsen lehen sarixa eta bigarrena Tolosako Martin Txiki basarriko Pedro Zuzuarregik eruan eban; eta ogirik onena Ezkio Itsasoko Tomás Urkiolarena izan zan, bigarren geratu zan Elorrixoko Maite Leanizbarrutiarenarekin batera. Horrez gaiñ, aurkezpenik onenari sarixa Sagarmiña basarriko Antonio Iparragirrek jaso eban eta azokan izan ziren hiru eibartarren artian Teresa Mugerza nagusitu zan.

Bestalde, **GASTEIZEN** bizi diran eibartarrak aurreko asteko egueñian ospatu eban jaixa, hamaikagarrenez antolatu daben afarixan. Olarizu jatexian batu ziran eta giro onian emon eben gaba, habanera ezagunen erritmora.







Txistorria



Ogixak



Txahala




Ganana




Kofradiake




Barazkixak



Talnak



Dantzari



Sarrituak


Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokak 44. ediziñua beteko dau aurten.

Gaur bertan hasi eta abenduaren 8ra arte Landako Erakustazokan egongo da martxan euskal kulturaren kalendarixuan kolore gorriz azpimarratu biharreko ekitaldixa. **Goixian 10.30xetan** zabalduko dittue atiak eta **20.00ak arte** ez dittue itxiko.

Barrero be, Gerediaga Elkarteak bultzatutako azokan euskerazko argitalpenak zein beste edozein hizkuntzatan euskal gaixak lantzen dittuen editorial, banatzaille, disketxe, erakunde eta kultur eragilliak alkartu eta danon eskura ipiñiko dittu.



Txinparta eta Pantxika paillazuak umiendako gune berezixaren aurkezpena kolorez jantzi eben.



Abenduaren 8ra arte zabalik

Eibartarrak Azokan

Durangoko eskaintza zabalaren barruan, urteroko moduan, hainbat eibartarren lanak topatzeko aukeria izango dogu aurten be. Katalogua osatzen daberen egillien zerrendiari begiratuta, jarraixan aittatuko dittugun honek topau dittugu: **Teresa Agirrezaldegi Berriozabalek**, Idoia Camachorekin batera, 'Dokumentazio zerbitzuak Euskal Herriko komunikabideetan = Los servicios

de documentación de los medios de comunicación del País Vasco' izenburukua eruangor dau (Euskal Herriko Unibertsitatea, 326 orrialde, 34 euro); **Pedro Alberdik**, barriz, Alberdania argitaletxiaren eskutik 'Carlos esaten zioten gizona' (narratziñua, 100 orrialde, 13 euro); **Juan Luis Baroja Collet-ek**, Jesus Mari Olaizola 'Txiliku'-rekin alkarlanian sortutako 'Piztiarioa' presentauko dau (83 orrialde, euskerazko, gaztelerazko, ingelesezko eta frantsesezko oharrekin, 12 euro), Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik; nobeletara bueltata, Txalapartak argitaratutako **Asier Serrano Lasaren** 'Erlojugilea' (200 orrialde, 17 euro) be topauko dogu; eta idazlia eibartarra ez izan arren, **gure herrixaren gaiñeko pasartiak** jasotzen dittuan Jesús Egigurren Imaz-en 'Historia del socialismo vasco (1886-2009)' liburua be han izango da.

Musika arluan be ondo ordezkaturta egongo da gure herrixa. Batetik, **Su Ta Gar** taldiak 20. urteurrenaren inguruan argitara emon barri daberen bilduma berezixa (CD + DVD) labatik urten barri topauko dogu (Jo Ta Ke Ekoizpenak), 6 eurotan salduko daberen datorren urterako egutegixarekin batera. Eta, bestetik, **Norman** taldiaren lehelengor diskua, Gaztelupeko Hotsak argitara emondakua, 14 eurotan erosteko moduan izango da.





Ikastolako lehelengo andereñueri omenaldixa

Azoka-eremutik kanpora be, euskal kulturarendako eszenarixo paregabia billakutzen da urtero Durango urte sasoi honetara ailegauta. Izan be, kontzertu, hitzaldi, taillar eta beste hamaika ekitaldirekin betetzen dabe azokaren inguruan preparautako programaziñua. Omenaldixetarako tarterik be ez da faltan izaten. Aurten Durangoko Argizaiola omen-sarixa ikastolaren hasierako urtietan andereño izandakueri emongo detse eta, horretarako, Hegoaldeko lurralde bakoitxeko andereño bat aukeratu dabe, Iparraldeko beste batekin batera: Izaskun Arrue (Araba), Libe Goñi (Iparraldea), Izaskun Gastei (Nafarroa), Karmele Esnal (Gipuzkoa) eta Begoña Aranguren (Bizkaia). Bixar jasoko dabe sarixa, 20.30xetan hasiko dan ekitaldixan.

Umiendako gune berezixa

Ume eta gaztiak oso kontuan hartu dittue azoka antolatzeko orduan eta, bestiak beste, eurendako bereziki diseñautako gunia izango dabe: **Haur Literatur Aretoa**. Berbaro alkartiak, Gerediaga alkartiaren laguntasunarekin antolatutako ekimen berezixaren helburua urte bi eta 12 urte bitartekueri, euskarazko literatura eta musikia gerturatzia da. Azokako edifiuziaren albuetako batian egongo dan gunia betetzeko, gaiñera, *"ilusiñoz eta ametsez osatutako lau eguneko egitaraua"* preparau dabela azaldu dabe arduradunak.

Haur eta gaztetxuak 10:30xetatik 20:00etara taillarrak, eskulanak, irakorretak, bideo emanaldixak, antzezpenak eta beste hainbat ekintza gertu izango dittue egunero. Ipuin kontalarixak, paillazuak, musikia...



02441

...eta kitto!-ko
GABONETAKO LOTERIA



SALGAI DUZU: Mujika harategia, Urkizu prentsa, Bolintxo "Ibarkurutze", Zabaleta okindegia, Narrua konplementuak, San Andres gozotegia, Kulu taberna, Correos, Udal Euskaltegia, AEK Euskaltegia, Isasi okindegia, Untzaga prentsa



Loteria hartzaileen artean, abenduaren 16an GABON OTARRA zozketatuko da

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma



Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- ↳ **Tanatorioa eta Errausketa labea**
Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- ↳ Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- ↳ Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- ↳ Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- ↳ Nazio eta Nazioarteko trasladoak



Mugica
Ehorzketa

Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

TEEN- AJEA



Xabier Irazola saria jasotzen.



Ane Lariza saria jasotzen.

Kutxak Gipuzkoako Ikasle Onenen sariak banatu zituen joan den astean. Euren artean eibartar bi zeuden, Xabier Irazola eta Ane Lariz. Informatika Ingenaria da Xabier eta hau da egin duen bigarren karrera. “Doktoretza egiteko asmoa neukan, baina ez nuen oso atsegin unibertsitatean beste lau urte egotea”.

XABIER IRAZOLA, informatikaria: “Informatika karrera nahiko gogorra izan da”

- Zein da ikasle onena bezala izendatua izateko gakoa?

Ikasketei denbora eskaini, batzutan zaila bada ere antolatzen saiatu, eta denbora ahalik eta hobetoen aprobetxatu. Informatika karreraren klase ordue-tatik kanpo egin beharreko lan askori denbora dezente eskaini behar diezu, hain teknikoak ez diren gaiak ikasteaz gain.

- Gogorra izan da Informatika karrera ikastea?

Nahiko gogorra. Esan bezala, lanak direla-eta denbora asko eskaini behar diozu klase kanpoan karrerari eta, gainera, egun erdiko lanorduekin bekadun bezala ere ibili naiz. As-teburu batzuetan unibertsitatean gelditu behar izan naiz talde-lanak aurrera eramateko.

**- Izan ahal da bereziki gehi-
go kostatu zaizun ikasgairik?**

Goi-mailakoan ez da egon behar baino gehiago sufriarazi nauen ikasgairik, baina ingena-ritza teknikoan bai. Termodina-mika ikasgaia aurrera ateratzea asko kostatu zitzaidan, urte erdi galdu nuen berarekin.

**- Ikasketek aisialdirako auke-
rarik utzi dizute ala beste
ekintza batzuekin alderatu
ahal izan duzu?**

Aisialdirako abagunea opo-rretan soilik izan dut. Klaseekin, bekadun lanarekin eta egin beharreko gainontzeko lanekin oso denbora gutxi geratzen zitzaidan ezer egiteko. Libre neukan arratsalde batzutan lagunekin egon edo airea hartze-ko aprobetxatzen nuen.

**- Nolako zen zure egunero-
koa ikasle bezala?**

08.15etan hasten nintzen la-nean bekadun bezala. Ordute-gia malgua zen, baina gero eta beranduago hasi, orduan eta denbora gutxiago neukan baz-kaltzeko. Klaseak 13.15etan hasten nituen 18.30ak arte. Ondoren, lan-kargaren arabera klasean geratzen ginen lanak aurreratzeko, nahiko sarritan gainera; eta unibertsitatean geratzea beharrezkoa ez bazen, beti zegoen zerbait begiratzeko edo informazioa bilatzeko, be-raz, ez geneukan aspertzeko denborarik.

URKIZU, 7 ☎ 943 82 04 94 / 943 12 11 20 Faxa: 943 12 11 40
uthemek@uthemek.com



UTILES Y HERRAMIENTAS PARA EL MECANICADO, S.L.

SPK- Zeramika, silizioa
ISCAR - Trontzaketa eta fresadorarako erreminta bereziak
ROY - Diamante eta boraxezko harriak




- Ogitaratekoak
- Plater konbinatuak
- Razioak
- Kazuelitak

Egogain, 5 - behea
Tel. 943 531 802

Hiru dimentsiotako mundua eraikitzen

Militarrak UNI Eibar-Ermuan. Misio bat daukate eta edonor akabatzeko prest daude euren helburua betetzeko. Ez, ez da istorio erreala, baina bideojoko batean gerta daiteke. Nola? UNI-aren eraikina 3Dn eginez Counter Strike jokorako.



3D-n sortutako eraikin onena sarituko du Uni lehiaketak.

Arrakasta handia daukan bideojokoa da Counter Strike eta UNI Eibar-Ermuak antolatu dituen lehiaketetan antzeman izan da hori. Hala ere, antolatzaile eta parte-hartzaileek zerbait gehiago

nahi dute, jokia pertsonalizatu, eta hori izango da aurtengo lehiaketaren aurretik egin beharko dutena: UNIaren eraikina 3Dn sortu Counter Strike bideojokorako.

Lehiaketa antolatu da 3Dn sortutako eraikin onena saritzeko. Irabazleak 300 euro eramanango ditu etxera, baina ez hori bakarrik, izan ere, berak sortutako eraikina 2010eko otsailaren 5ean jokatuko den Counter Strike txapelketaren eszenatoki bezala erabiliko litzateke. Eta ez hori bakarrik, aurrerago eraikina ikasle berri

eta gurasoei zuzendutako bisita bertualak egiteko erabiliko litzatekeelako.

Materiala webgunean

Eraikinak sortzen laguntzeko hainbat material aurki daitezke UNIaren web orrialdean (www.iesunibhi.com). Bertan eraikinaren planoak aurki daitezke pdf formatuan eta autocad formatuan, beraz, hauek deskargatzea besterik ez dago egin behar dena jakitzeko. Antolatzaileen berbetan, *“zehaztasuna kontuan izango da, baina helburua ahaztu gabe: ahalik eta modu errealean partida jokatu ahal izatea”*.

Planoez gain, eraikinaren argazkiak egongo dira eskura-

garri webgunean. Bestetik, mapak sortzeko softwareerako esteka era aurki daiteke bertan eta baita eskuliburu bat ere, “guztiok anima zaitzeten”.

Parte-hartze zabala

Edonork hartu ahal izango du parte lehiaketa honetan. *“Ez dugu bereziketarik egin ez adin, sexu... Eta parte-hartzaile bakoitzak (nahi izanez gero) lan bat baino gehiago bidali dezake”*.

Anonimotasuna bermatzeko, lanak unieibarermua@gmail.com-era bidali daitezke, zentruko idazkaritzan eskutitz batean utzi edo posta arrunta erabiliz bidali. Hauetako edozein formatu erabilia, goitzen batekin sinatuko da eta inoiz ez bakoitzaren izenarekin. Ondoren, mezu elektronikoa bat bidali beharko da uniencounter@iesunibhi.com helbidera eta bertan lanean agertzen den ezizena eta benetako izen-abizenak, helbidea eta telefonoa azaldu beharko dira. Lanak entregatzeko azken eguna, bestetik, 2010eko urtarrilaren 31 izango da.



Herri Irra


La Movida eibarresu

Kirola atseginez egunero Borja Rodriguezekin, arratsaldeko 3etatik 4etara

90.7 Fm



ZINTZILIKARIOA:
10 euro



ZINTZILIKARIOA:
18 euro



ZINTZILIKARIOA:
8,20 euro



BELARRITAKOAK:
30 euro



ESKUMUTURREKOA:
7,60 euro

ZINTZILIKARIOA:
7,50 euro



ESKUMUTURREKOA:
34 euro



AHOZAPIA:
3,30 euro

AMANTALA:
20,70 euro



ARDILATXA KATILUA:
6,90 euro



HIGROMETROA:
25,50 euro




UMEAK:
2, 4, 6 eta 8
18 euro

NAGUSIAK:
M, L, XL
23 euro

MAHAI-OIHALAK:
180x200: 48,10 euro
180x250: 60,50 euro
180x300: 70,20 euro

NAGUSIENDAKO
BAINU-BATA:
S, M, L, XL
67,50 euro



JAIOBERRIENDAKO
TOALLA:
17,60 euro



TOALLAK:
30x50: 7,30 euro
50x100: 14,50 euro
70x140: 24,20 euro
100x150: 34,80 euro



Etorri Olentzerori zerranda egiten laguntzera. Egunero, ...eta kitto! Elkartearen bulegoan (Urkizu, 11)
10.00/13.00 eta 16.00/20.00. Zapatuetan: 10.00/14.00

IKUSI, AUKERATU eta ENKATU


...eta Euskara E Gabon KATA

kitto! Elkartearen metako KATALOGOA

Katalogoak dituen
irabaziak euskera
sustatzen erabiliko
ditugu



EGURREZKO
OPARIAK



ARBOLARAKO
OLENTZERO:
3,75 euro






UMEENDAKO
BAINU-BATA:
2, 4, 6, 8
44 euro



Iruñeko
KARRIKIRI
Euskara
Elkartea

ARGUA EGIN!

DISKA, DVD, MAHAI-JOKO ETA LIBURUAK



BESTE DISKA, DVD ETA JOKOAK:

69 abesti jolasteko (16 euro); Aiko (10); Anari (14,60); Asko maite zaitut (13,40); Auñamendi (18,80); Betagarri (16); Bulun-bulunka (13,40); Euskal Herriko Mapa erliebean (106); Egizu lo (16); Egutegia 2010 (8); Elbereth (12); Euskara Jendea (32); Etxe (13); Fermin Muguruza Remix (12); Gari (16); Goazen (12,95); Gose 3 (14,60); Gu Ta Gutarrak (15); Handitzen Handitzen (13,40); Kantiruri (18,50); Katramila (25); Ken Zazpi (18,50); Kerobia (8,30); Kudai (12); L.Iriondo+X.Lete (13,40); Malenkonia (14,60); Mendeku Itxua (12); Mihiluze (35); Mikel Laboa Gernika zuzenean (16); Mikel Urdangarin (13); Norman (14); Olentzero DVD (12,95); Orhipean (24,50); Patxi eta Konpainia (14); Pello eta Osoa (20); Petti (9,50); Piztiak (14,60); Ruper Ordorika (16); Su Ta Gar (22); Txikia izanik (13,40); Zaharregia Txikiagoa (20); Zeren Zai (15,75); Zinema Eixean 3 DVD (36).

Jesus Egiguren Eusko Legebiltzarrean PSE-EEren presidentek berak idatzitako 'El socialismo vasco' liburua aurkeztu zuen eguaztenean Portalean. Mario Onaindia Fundazioaren ekimenez egindako liburua da hau eta fundazioko kide da Eibar aldizkarian idazten duen Alberto Agirrezabal.

ALBERTO AGIRREZABAL,
Mario Onaindia Fundazioko kidea:

"Eibarko sozialismoa historikoki bada zerbait"

- Mario Onaindia Fundazioko kide zara, baina baita bere lagun eta kidea ere urte askotan zehar. Nola gogoratzen duzu Mario?

Niretzat ezaugarri bi ditu. Batetik, bera aritu den toki guztietan askatasunaren alde egin duela; beti pertsona libreza izan dela, oso libreza, egon den tokian egon dela libreza izan da, baita toki txarretan bizi izan denean ere; askatasunarengatik bizi-tza guztia duela; eta oso ausarta eta adoretua izan dela. Eta bestetik, gutxi izan duten ezaugarri bat izan du, politiko konprometitu bat izateaz gain, intelektual haundi bat izan dela.

- Bera hil zenetik gauzak asko aldatu dira Euskal Herrian. Nola uste duzu ikusiko zukeela berak Euskal Herriaren gaur egungo egoera?

Seguru pozik egongo litzatekeela gaur egun, izan ere, berak haxe nahi zuen, al daketa hau gertatzea. Beste askok bezala askatasun falta salatzen zuen, beraz, uste dut oso pozik egongo litzatekeela.

- Orain dela gutxi sortutako fundazioa da Mario Onaindiarena, irailean zehazki. Zeintzuk dira bere funtzio eta helburuak?

Batetik, Marioren ondareari eustea, Ma-

rio ez ahaztea, Marioren lan eta eginak go-goan izatea eta zabaltzea. Eta bestetik, guk ikusten dugu bere memoria ez dagoela behar den bezala idatzita eta berriz idaztea nahi dugu. Alegia, badirudi ezkeriarrrak, progresistak, sozialistak Euskal Herrian historikoki euskal kultura, euskera, autogobernua eta gauza horietatik bizkarra emanda bizi izan direla. Eta gure ustez hori gezurra denez, historia berridatzi nahi dugu historia hori berriz zabaldu dadin.

- Nola egituratzen duzue fundazioa?

Hiru sail egin ditugu. Bat kultura eta euskeraren gainean arituko da, bigarrena artxibo eta historiaren gainean, eta hirugarrena politika gaiak aztertzen. Espero duguna da poliki-poliki fundazioa egonkortzea eta luzaroan jarraitzea.

- Mario Onaindia fundazioaren ardatza da ala izena bakarrik?

Ardatza da, Mariok eremu asko ukitzen zituelako. Batetik euskera. Ez dago politiko bat Mariok haina euskeraz idatzi duenik. 26 liburu idatzi zituen euskeraz; inor gutxi haina sakondu zuen euskera, bai kartzelan, bai kartzelatik kanpo; zinegile bezala, gidoigile bezala aritu zen eta horren gainean tesia egin zuen, Filologia Ingelesean doktoretza lortuz; bere azken liburuan his-

torialari aldea erakutsi zuen; eta abar. Mariok aukera asko uzten ditu. Mario ez da izena bakarrik, ardatza da. Lagun asko zituen toki guztietan, batez ere alor honetan, hemendik kanpo ere, baina hemen batez ere, baita etsaiak ere.

- Zeintzuk osatzen duzue Mario Onaindia Fundazioa?

Jende asko dago. Marioren lagunak, kartzetariak... jende ezberdina.

- Eguaztenean Portalean aurkeztu zen Jesus Egigurenek idatzitako 'El socialismo vasco' fundazioaren ekimenez egin da.

Gure asmoa beste bat zen. Eibarko sozialismoaz hitz egiten joatea zen gure nahia, baina berandu iritsi ginen eta datoren urterako utziko dugu hori, eta nola liburu hau kaleratu berri den aproposa ikusi dugu aurkeztea.

- Liburuan aipatzen den euskal sozialismo horren barruan nolako garrantzia dauka Eibarrek?

Niretzat, behintzat, ikaragarria. Uste dut Eibarko sozialismoa eredu bat izan zela eta gurekin zerikusi handia dauka, sozialismo euskalduna zelako, sozialismo benetan bitxia. Eibarko sozialismoa bada zerbait historikoki.



Alberto Agirrezabal (ezkerrean), Estatutuaren egunean Bandreleri emandako Lan Onaren saria jaso zuenean.

**EMAKUME ETA GIZON
MODA**

Valenciaga

K O N F E K Z I O A K

☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA

EHORZKETA-BEILATOKIA

• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK


BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behe, ezk. ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 FAX: 943 202564




Eibarko Pintxo Txapelketaren VI. edizioa Txaltxarentzat



Koskor.



Terraza.



Anardi.

Herriko hemeretzi taberna izan ziren aurreko egue-
nean VI. Eibarko Pintxo
Txapelketan parte hartu zutenak
eta oso maila polita erakutsi zu-
ten guztiek, Vicente Belda, Itsaso
Izagirre, Josu Jiménez eta
Unai Magunazelaiak osatutako
epaimahaiak adierazi zuenez.
Lan zaila izan zuen laukoteak
pintxo onena aukeratzeko, *“kali-
tate handikoak izan baitugu au-
rrean”*. Azkenean, baina, Txal-
txako *“Shitake brie-an, pil-pil
eran egindako bakailaoarekin”*
izan zen irabazlea, batez ere
*“aparteko aurkezpena zuelako
eta, aldi berean, azpimarratze-
koa zelako produktu tradizio-
nalen eta berrien arteko kombina-
zioa”*, epaimahaikoen esanetan.

Aipamen bereziak jaso zituz-
ten ere Terrazak *“produktu tradi-
zionalen erabileragatik eta zapo-
reen konbinazioan sartutako be-
rrikuntzarengatik”* eta Ambigúk
*“zapora eta testuren arteko uztar-
keta egokiagatik”*. 18.00etan hasi
zen epaimahaiaren lana eta, ta-
berna bakoitzean hamar bat mi-
nutuko zereginaren ondoren,
gaua zen azken erabakia eman
zuenerako. Tabernetako bezero
askok ere hartu zuten parte pin-
txoa eskatu eta dastatzerakoan.

Txaltxa taberna irabazlearen
arduraduna oso pozik zegoen,
aurretik ere parte hartutakoak
izan arren, lehenengo aldiz ira-
bazi dutelako aurten. Pintxo ira-
bazlearen ideia Esther Pérez
bertako sukaldariena izan da.

Hitzaldi dastaketa

Pintxo lehiaketa antolatu duen
Arrate Kultur Elkarteak atzarako
(ordurako ale hau inprentan ze-
goen) hitzaldi-dastaketa zuen
antolatuta. ETB1-en egiten duen
programatik askok ezagutuko
duzuen Iro Landaluzek *“Perre-
txikoak eta onddoak”* inguruan
jardun behar zuen.



Kultu.

PARTE HARTU ZUTEN TABERNAK ETA PINTXOAK

Aguñaspi.- “Paulino”. Tosta
ezkur paleta, ahuntz gazta eta
tipula konfitatuarekin.

Ambigú.- “Jurassic Park”: Pipe-
rrada, odolostea, pasak, sagar
purea eta arraultza gorringoa.

Anardi.- Txerri-solomoa, tipula,
ahuntz-gazta eta intxaurrek.

Aterpe.- “Barraskilo gosetia”:
Masail-pudinga, batata, zereal
eta fruitu lehorren kremarekin.

Big Ben.- “Bakailao carpac-
cioa”: Ogi txigortua, bakailao
keetua, Baztango tomatea,
olioa eta perrexila.

Birjiñape.- “Onddo-flana”:
Onddo eta urdaiazpiko flana,
kalabazin-gelatina eta ogi txi-
gortuarekin.

Bossa.- Babarrunak hainbat
tutetan: Babarrun gorriak, odo-
lostea, hirugihar, saihsa, txisto-
rra eta azaren txigortuarekin.

Bost.- Hojaldrea kalabaza eta
piper errekin egindako pistoa-
rekin betea.

Ego-Gain.- “Pintxo Ego”: Masai-
la, onddo-saltsa eta patatekin.

Etzola.- “Bakailaoa hainbat
eratan”: Muskuilua ondoz be-
tea bexamelarekin, urrezko ba-
kailaoa eta bakailao klubingel.

Koskor.- “Hortzak garbitu”:
Onddo eta perretxiko moussa
tosta gainean, arrain-fumea,
menta eta patearekin.

Kultu.- “Itsasoa, Lurra eta Ai-
rea”: Txerri masaila, ogi kurrus-
karia, hojaldrea, txipiroi saltsa,
almeja, langostinoa, grosella,
espinaka krema eta limoizko
izozkia.

Monteka.- “Porru ta ke”: Po-
rruak, shi-take perretxiko fres-
koak, sesamo olio eta tamaria,
irin integrala, sagar kontzentra-
tua eta sesamo beltzarekin.

Su Beroa.- “Alberjina betea”:
Alberjina, okela, barazkiak, be-
xamela eta gazta.

Tas-Tas.- “Pintxotas”: Baserri-
ko ogia, olio, tomate eta ba-
razkien eskalibada, ahuntz
gazta eta sesamo karameliza-
tuarekin.


Terraza.- “Encrasichaleus txi-
gortua, testura gazi-gezarekin”:
Antxo eta mahaspasak, ogi
txigortuaren gainean.

Trinkete.- Kalabazina, gulak,
txanpiak, urdaiazpikoa, pipe-
rrak eta ogia.

Txaltxa.- “Shitake brie-an, pil-pil
eran egindako bakailaoarekin”.

Txoko.- “Olagarro rigatonia”:
Rigatoni pasta betea, tipula gor-
ria, olagarroa, pipermiña, olio
eta albahakarekin.

2. B mailako Eibar FT-ri puntuak ihes egin dioten bitartean, 3. mailakoa lasaitze bidean



TXARTO OHITU GAITUELA-KOAN EDO, EIBAR FOBALL TALDE NAGUSIAK AZKEN JARDUNALDI BIETAN BINA PUNTU LAGA DITU bidean: Ferrolen ez zen irabazteko gai izan eta domekan Compostelarekin berdindu zuen Ipuruan. Emaizta horien ondorioz, jarraitzen dioten taldeekiko aldea murriztu egin da eta, goi-goian badago ere, bost puntura du Ponferradina sailkapeneko bigarrena. Domekan, 17.00etan

hasita, Galiziako beste talde bat (oraingoan gogorragoa, gainera) bisitatu beharko du Eibarrek. Lugo sailkapeneko 6. postuan dago eta multzoko talde golegileena da une honetan.

Bigarren taldea gorantz

Gutziz kontrakoa izan da Uribe zuzentzen duen 3. mailako taldeak azken aste biotan lortutakoa, aspaldi ez baitzuen sei puntu jarraian bereganatzen: Zallan ezustekoa eman eta

ekarritako hiru puntuei, Unben Gernikari irabaziz eskuratutakoak gehitu behar zaizkio eta, horri esker, beheko postuetan jarraitu arren, sailkapenean hainbat taldeetatik gertu dago Eibar B eta borrokan jarraitzeko gogoz. Azken jardunaldietan, gainera, golik ez dute jaso eta, horrekin, ziurtasuna irabazi dezakete jokalariek. Asteburuan Beasaingo Loinaz zelaia bisitatuko dute; aurkari zaila, beraz, eibartarrentzat.

Retegi BI eta Lasa Astelenan

GOIKOAK IZANGO DIRA DOMEKAKO PARTIDU NAGUSIKO AURRELARIAK eta, Eulate eta Zubietarekin hurrenez hurren, 22 kartoira heltzeko ahaleginean jardungo dute. Jaialdia hasteko, Capellán-Arruti eta Olazabal-Cecilio bikoteek neurtuko dituzte indarrak; amaitzeko, berriz, Galartzatarrek Del Rey eta Merinoren aurka jokatu dute. San Andres eguneko norgehiagoka nagusian, Gonzálezek (Pascualekin) 22-21 irabazi zion Irujori (Beroizekin).




Hierros Anetxeko rugbilariek Bartzelona hartuko dute 2. itzulia hasteko

IRABAZTEKO AUKERA BERRI BATEK IHES EGIN ZIEN HIERROS ANETXEKO RUGBI TALDEKOEI ZAPATUAN UNBEN jokatu dute partiduan. Sailkapeneko azken biak neurtzen zituzten indarrak eta, azkenean, Durango izan zen ura bere errortara eraman zuena (17-22), atsedendian ere, gutxigatik izan arren, 7-8 aurretik joan eta gero. Bigarren zatiko entsegua eta zigor kolpea ez ziren nahikoa izan bizkaitarren entsegu biei aurre egiteko eta eibartarrak puntu bonusarekin konformatu

behar izan ziren zeozer gehiago lortzekotan izan zirenean.

Bigarren itzuliko lehenengo jardunaldia jokatu da asteburuan eta hor eibartarrek Bartzelona sailkapeneko 2.a hartuko dute Unben. Talde biak igo berriak izanda ere, kataluniarrak askoz hobeto moldatu dira orain arte eta eibartarrak, aldiz, denboraldiko lehenengo garaipenaren bila jarraitzen dute. Ea iaz euren arteko Zaragozako finalaren emaitza errepikatzen den eta Isasak entrenatutako mutiak nagusitzen diren behingoz.

21 eibartar Donostiako maratoian



190	Jose M ^a Bernedo2h52'05"
565	Xabier Baztarrika3h05'54"
641	Alberto Lorenzo3h07'46"
713	Ibon Martín3h10'11"
751	Eduardo Uribe3h11'20"
890	Íñaki L. Gereñu3h15'02"
926	Santiago Santamaría	.3h16'31"
941	Javi Aldai3h17'01"
1125	Fermin Murillo3h23'00"
1221	Alex Telleria3h24'57"
1420	Jose M ^a Gutiérrez3h28'40"
1442	Josu Trebiño3h30'16"
1522	Jorge Carrión3h32'40"
1541	Juanjo Laramendi3h32'35"
1556	Leandro Luengo3h33'18"
1685	Ibon Muñoa3h36'48"
1971	Manu De Blas3h50'58"
2010	Jose Nieto3h53'16"
2013	Pedro Gómez3h53'17"
2030	Íñigo Astigarraga3h54'17"
2277	Fernando Serrano4h26'40"

Asador Azitainekoak bide zuzena aurkitzeko tenorean

DENBORALDIA MODU KASKARREAN HASI ETA GERO, HIRUGARREN GARAIPENA JARRAIAN eskuratu dute jubencil mailako areto-foballeko gure ordezkariak. Denak Gazte Tabernari 1-7 irabazi zioten, markagailuak kantxan gertatutakoa guztiz ez badu islatzen ere: horren adibidea da atsedendira bana berdinduta joan zirela aldageletara. Jarraian, baina, hainbat zigor jaso zituzten aurkariak eta eibartarrak ondo baliatu ziren egoeraz garaipen erraza lortzeko. Ivan Ló-

pezek hiru gol sartu zituen, Borjak bi eta Anderrek eta Ma-teok bana.






Cutura izan zen, Rédeirekin batera, goleatzaile nagusiena Vigon.

Octaviorekin berdindu eta gero, Valladoliden jokatu du Arratek

IRABAZTEKO PARTIDUA IZAN ZUEN ARRATEK OCTAVIOREN AURKA GALIZIAN jokaturakoa, baina arriskua ere izan zuen galtzeko. Azkenean, berdinketarekin konformatu behar izan zuten talde biak. Atsedendian, 15-13 galtzen zuten eibartarrek; bigarren zatian, ordea, neurketa euren alde jarri zuten eta hiru goleko aldea ere izan zuten. Bihar, arratsaldeko 20.00etan hasita, Valladoliden jokatu beharrekoa askoz zailago izango dute Julian Ruizen mutilek, logikak agintzen badu behintzat.

Herriko gimnasten asteburua Iruñean eta Utebon

TORNEO BITAN PARTE HARTU DUTE IPURUA GIMNASIA ERRITMIKOKO TALDEEK azken asteburuan: zapatuan Reyno de Navarraren 3. edizioa izan zen jokoan Iruñean



eta domekan Zaragozako Utebo Hiria torneoa jokatu zen. Reyno de Navarra lehiaketan, Ipuruakoak nagusi izan ziren seniorretan eta infantiletan eta 3. postuan amaitu zuten 1. mailako sailkapenean. Bestelako garaileak Anaitasuna (1. mailan eta juniorretan) eta Escuela Zaragoza (alebinetan) izan ziren. Uteboko torneoan, bestalde, 1. mailako eibartarren garaipenarekin batera, honakoak izan ziren irabazle: Madrilgo Chamartin seniorretan, Valentziako Atzar juniorretan, Catalunya infantiletan eta Escuela Zaragoza alebinetan.

Aizkolarien San Andres torneoaren etxean geratu zen

ERNESTO EZPELETA "BIHURRI"K BESTE BEHIN IRABAZI BAITZUEN SAN ANDRES BEZPERAN jokaturako torneoaren; zazpi-garren edizioa zen aurtengoa eta, Telletxearekin bikotea eginez, eibartarrek ordu erdi eta minutu erdi behar izan zuten zortzi mozketako lana burutzeko. Euren atzetik sailkatu ziren Etxeberriak eta Floresek osaturako bikotea (pare bat minutu ingurura) eta Zelaik eta Azkunek osaturakoa (azken hauek atzerapen dexenterekin). Urtetik urtera gero eta jarraipen handiagoa duen ikuskizuna bihurtu da dagoeneko San Andres aizkolarien torneoaren; arrakasta horren motibotako bat parte hartzen duten aizkolarien maila ere bada.



Bihurrik eta Telletxeak irabazi zuten San Andres torneoaren 7. edizioa. / EKHI BELAR



Hiru eibartar EuskalSofa squash torneoan

JON LOSADA, SERGIO SALGADO ETA ALBERTO FERREIRO Eibarko Klub Deportivo boko jokalariek hartu dute parte torneo horretako 1. edizioan. Ferreiro izan zen ordezkari onena, finalerdietara iritsi baitzen, fase

horretan gero txapelduna izango zen Javier Villanuevarekin galtzeko. Salgado final laurdenetan erori zen, Ferreiroarekin hain zuten, neurketa gogoangarria egin eta gero. Losada 16 onenen artean geratu zen.



- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



Toribio Etxebarria, 4

Bilbo eta Eibar. Eibar eta Bilbo. Bilbon jaio ("kasualitatez", Eibarren hezi eta Bilbon bizi. Hiri bi hauen artean ibili da Alberto Rementeria margolaria. 'Consecuencias' lana Bilbon erakutsi zuen lehendabizi urtarrean eta, ia urtebeteren ostean, Eibarren egingo du gauza bera abenduaren 11tik aurrera Portalean.



ALBERTO REMENTERIA, margolaria:

"Giotto, ornamentuak eta kolorea dira ardatzak"

- Artikulu batean erakusketa mudantza batetik sortu dela esaten zenuen. Zer dela-eta?

Estudio-mudantza batetik zehazki. Beste leku batera bizitzera joaten zaren modukoa da, dena antolatu behar duzu ahalik eta eroso sentitzeko. Egindakoa berrikusteko balio dizu. Horrela, lehendik hasi eta gero utzitako bideak ukitzen dituzu. Egindako guztiaren hausnarketa egin eta hainbat gauzekin jolasten hasten zara.

- 'Consecuencias' titulua dauka erakusketak. Zer iradai nahi duzu horrekin?

'Consecuencias'-ek egindako guztia aurretik egindakoaren ondorioa dela esan nahi du. Katalogoan Gorpu-Gozen (Cadáveres Exquisitos) jolasei buruzko informazioa dago. Jolas surrealista da hau, 1920. hamarkadako gutxi gora behera. Mahai-jolas baten modukoa da, idazleen jolas bat (Andre Breton eta ingurukoena), eta bertan batek esaldi bat idazten zuten eta horren azken berbarekin beste batek beste esaldi bat idatzi behar zuten. Irudi arraroak irtetzen ziren guzti horretatik eta irten zen lehen esaldietariko bat "Los cadáveres exquisitos beberán el vino nuevo" paradoxa izan zen. Hortik dator kio izena jokari. Gauza da paradoxa bila-

izea elementu ezberdinetatik abiatuz, baita margolaritzan ere. Gorpu-Gozen jokoa, bestetik, 'Consecuencias' izeneko joko batetik dator eta ideia gustatu zitzaidan.

- Oso kolore biziak erabiltzen dituzu.

Erakusketa hiru elementutatik abiatzen da. Batetik, badago oso gustokoa dudana gizona, Giotto, errenazimendu aurreko margolaria, zintzoa izan arren oso xarma berezia zuena. Bestetik, ornamentuak daude. Eta azken elementua kolorea da: kolorea sentsazio moduan. Ikusleari sentsazioak sortarazteko gauza den kolorea. Esplikatzeke zailak diren sentsazioak, baina musikak moduan koloreek sor ditzakeenak.

- Toki askotan egin dituzu erakusketak, baina inoiz ez Eibarren bakarka. Berezia izango da zuretzat?

Erakusketak egitea ahalegin hutsala da, ez delako saltzeko zerbait, eta gauza asko antolatu behar dira. Ondo dago egindakoa berrikustea, baina nagieria ematen du. Beraz, erakusketa beste leku batean egiteko esango bazidaten, ez nuke egingo, baina Eibarren egiteko gogoia neukan. Ezagutzen nuen Eibarrek egungoarekin zerikusi gutxi izan arren, oso berezia izango da niretzat.



Kezkako dantzariak Victoria Eugenia

DONOSTIAKO VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAN DANTZATUKO DU EIBARKO KEZKA DANTZA TALDEAK GAUR, Juan Antonio Urbeltzek eta Argia dantzari taldeak zuzendutako 'Axuri-beltza' ikuskizunean. Urbeltzek eta Marian Arregik 'Jaurrietako Axuri-beltza' sortu zutela 40 urte bete dira aurten eta, urteurrena ospatzeko, ikuskizun berezia eskainiko du Argia dantzari taldeak. 'Axuri-beltza' izeneko ikuskizunak Argiaren ibilbideko hainbat dantza biltzen

ditu, beste lan berri batzuekin batera. Argiako dantzari eta musikariek gain, Iruñeko Duguna, Elgoibarko Haritz, eta Eibarko Kezka dantza taldeetako dantzari eta musikariek hartuko dute parte, 80 bat lagunek dena; tartean Kezka dantza taldeko 26 dantzari jardungo dute ikuskizunean eta Elgoibarko Haritz dantzari taldeko beste 11 dantzari lagun izango dituzte. Beraz, Debabarrenako ordezkari zabalak izango da Victoria Eugeniaren oholta gainean.



Gabonak postre goxoekin apaintzeko aukera emango du ikastaroak.

Bi egunetako gozogintza ikastaroa

AURTEN GABONETAN POSTRE GOXOAK NOLA PRESTATU IKASTEKO AUKERA IZANGO DA, ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatu duen gozogintza ikastaroan. Saio bi izango dira eta egun bakoitzean errezeta ezberdinak lantzeko aukera izango da. Abenduaren 10ean, datorren egunean izango da lehenengo saioa eta egun horretan pastel-krema, gazta-tarta eta txutxoak egiten ikasiko dute ikastaroan izena ematen dutenek. Abenduaren 16an (eguztana) bizkotxo eta ijito-besoa prestatzen ikasteko aukera izango da. Ikastaroa San Juan kaleko Kamarroak elkarte gastronomikoan egingo da, arratsaldeko 18.30etatik aurrera eta izen-emateak 10 euro balio du (...eta kitto!-ko bazkide eta Berbalagunentzat 5 euro). Izena emateko deitu ...eta kitto!-ra, 943200918 telefono zenbakira.




Santa Barbara eguna museoan

GAUR, ABENDUAK 4, SANTA BARBARA EGUNA DA. Armagin, artilleror, hargin, meatzari, pirotekniko eta, orohar, leherkariekin beharrean diharduteneen zaindaria da eta, bere eguna ospatzeko asmoarekin, Armagintzaren Museoak ate irekien jardunaldia antolatu du gaurko. Portaleko 5. pisuan dagoen museoak ohiko ordutegian zabalduko ditu ateak gaurkoan ere, hau da, 16.00etatik 20.00etara, baina bisitan doazenek ez dute sarrerarik ordainduko eta, gainera, oparia jasoko dute.

Koreako txotxongiloak Coliseoan

COLISEOAK KOREAKO ART STAGE SAN KONPAINIAREN TXOTXONGILOAK JASOKO DITU bihar 17.00etatik aurrera Coliseoan. Nazioarteko XXVI. Txotxongilo Jaialdian kokatzen da ekintza hau, eta aurretik Hezkuntza Esparruan Israel eta Mexikoko txotxongiloak egon baziren, Koreakoak ikusteko aukera egongo da oraingoan publiko guztiarentzat 3 euroko prezioan.

'Dallae story' izenburupean aurkezten da txotxongilo ikus-kizuna. Bertan, basetxe bateko lurrean kokatuta, gizon eta emakume bana agertzen dira eta txotxongiloekin jolasten dute. Txotxongiloen bitartez euren istorioa kontatzen dute: ezkontza, alabaren jaiotza, laneko garai onak, eta bizitza eta denbora irudikatzen dute urteko lau urtaroretan zehar.



Euskarazko zineaz gozatzeko aukera

COLISEOAK EUSKARAZKO LAU PELIKULA ESKAINIKO DITU ABENDUAN ZEHAR 'ZINEMA EUSKARAZ' PROGRAMAREN BARRUAN. Euskal Herriko hainbat herritan aurrera eramandako proiektua da hau eta euskarazko filmeak eskaintzea da helburua, haur eta gazteei zuzenduta batez ere.

Euskadiko Filmmategiak prestatzen du emanaldien programazioa eta Eibarren kasuan honako pelikulak ikusi ahal izango dira: 'Cher ami... eta ni' (abenduaren 6 eta 8an), 'Zorion perfektua' (8an), Pluk eta bere garabia (21 eta 22an), eta 'Txori urdin' (8an Amaña Kultur Aretoan). Lehen hiru filmak ikusteko sarreraren prezioa 3 eurokoa izango da eta Amañan ikusiko denaren kasuan 2,80 eurokoa.

Olentzerori eskutitzak idazteko ordua heldu da

BADATOZ GABONAK ETA OLENTZERORI HASI DA OPARIAK PRESTATZEN.

Hala ere, zein opari prestatu behar dituen jakiteko eskutitzak jaso behar ditu lehenik eta behin. Horretarako, eskutitzak jasotzeko buzoiak jarriko dira Portalea eta Pe-

goran abenduaren 9tik 18ra. Horrez gain, gogoratu behar da abenduaren 24an Olentzero herrian izango dela. 17.00etan opariak banatuko ditu Udaletxean eta 18.00an kalejira egingo du Musika Eskolako soinu ikasle eta trikitilariekin batera.



laburrak

KALEETAN KANTUZ

Datozen egunotako agenda bete-betea daukate Kaleetan Kantuz-ekoek. Abenduaren 10ean eta 17an entseguak egingo dituzte, 19.30etan San Andres elizako lokaletan eta hilabetea amaitu aurretik hiru irteera egiteko asmoa dute: hilaren 12an, 19.30etan Untzagatik abiatuko dira kalejiran, hilaren 23an Arragueta eta Coliseo inguruan ibiliko dira, 17.30etatik aurrera eta hurrengo egunean, hilaren 24an, Olentzerori lagunduko diote, 18.00ak aldera.

DOKUMENTALA

Hilaren 18an, 20.00etatik aurrera Eibar eta zezenen inguruko dokumentala emango dute Coliseoan (euro 2). Eneko Anduezaren gidoiari jarraituta eta Ibon Uzkudunek zuzenduta, 90 bat minutuko iraupena izango du proiektioak.

eramateko
janaria

come
Zuloagatarren, 7
943 03 01 87

laster zabalik

- Eguneko menua
- Plater prestatuak
- Postrea, ogia eta edaria
- Zapatu eta domeketa gure zabalik

Euskeraren Eguna

ATZO, ABENDUAK 3, EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA OSPATU ZEN ETA EIBARREN eta, horretarako, Juan San Martin idazle eibartarraren 'Zirikadak' (1960) eta 'Eztenkadak' (1965) liburuak etenbarik, 12 orduz jarraian irakurri zituzten hainbat lagun- nek udaletxeko pleno aretoan. Goizeko 08.00etan ekin zioten jardunari, Miguel de los Toyos alkateak irakurritako pasartearekin. Iñaki Arriola alkate ohiak ere ekitaldi berezi horretan parte hartu nahi izan zuen eta berak ere beste pasarte bat

irakurri zuen. Jarraian ekime- naren babesleak izan diren Ur- kotronik eta La Caixa-ko or- dezkariek jardun zuten eta haien atzetik, egun osoan ira- kurleak txandakatzen joan zi- ren, bakoitzak umorez beteta- ko lanetako baten pasartetxoa irakurrita.

Udalak eta ...eta kitto! Eus- kara Elkartek, herriko elkarte eta erakundeekin elkarlanean antolatutako ekitaldian herrita- rren partehartze zuzen eta za- bala bilatu dute aurtengoan eta, horregatik, herriko talde eta erakundeei parte hartzeko

Atzo Juan San Martinen "Zirikadak" eta "Eztenkadak" liburuak irakurri ziren 08.00etatik 20.00ak arte



Juan San Martin 2009 Beka Javier Muñozentzat

EUSKERAREN EGUNAREN TESTUINGURUAN ETA JUAN SAN MARTINEN FAMILIAKO ORDEZKARIEK HERRIRA EGINDAKO BISITA APROBETXATUTA, eibartarraren izena daraman bekaren aurtengo irabazlea zein izan den ezagutzera eman zuten: Artea ikergai zuen Juan San Martin 2009 beka Francisco Javier Muñoz Fernández-ek eskuratu du 'Euskal Herriaren eraikuntza gerra ostean: Eibarko herriaren berreraikuntza' izenburuko lanarekin. Bekaren irabazlea irakaslea da eta arkitektura zein eraikuntzarekin lotutako artikulu zein bestelako lan asko dauzka argitaratuta, besteak beste 'La Arquitectura Muda: Bilbao durante los años de guerra y posguerra', 'Reconstrucción y vivienda', 'Bilbo eta Arkitektura Arrazionalista 30. hamarkadako auzo etxeak'.



Gerra ostean Eibarren izandako aldaketak aztertuko ditu irabazleak.



Miguel de los Toyosek hasi zuen irakurketa; guztira, 300 lagun baino gehiagok hartu du parte.

gonbidapena luzatu zaie. 300dik gora lagun batzea lortu dute eta ordezkariak benetan zabala izan zen ekitaldian: ikastetxeak, elkarteak, eragile eta hainbat erakundetako ordezkariak, kazetariak, idazleak, kirolariak, euskaltzaleak...

Eta denen artean, liburuaren egilearekin izandako harreman zuzen eta estuarengatik bereziki aipatzea merezi duten San Martin zenaren familiakoak eta atzo irakurritako lan bietan agertzen diren marrazkien egi- lea, Julen Zabaleta.

Irakurketak iraun zuen bitar- tean udaletxeko pleno aretoa zabalik egon zen, nahi zuten guztiek bertara joan eta irakur- keta zuzenean jarraitu ahal iza- teko aukera eskaintzen eta, ho- rrez gain, kalean ipinitako me- gafoniari esker, Untzaga pla- zan eta inguruan zebilen jende-

ak ere irakurketa saioa entzun zuen. Datorren asteko alean ja- rraipen zabala eskainiko diogu atzoko ekitaldiari, protagonis- ten argazkiak eta bestelakoak kaleratzeko moduan izango di- tugu eta.

EUSKARAREN


ERDILDUNEN EUSKARAREKIKO AURREIRITZIAK ETA JARRERAK.

Horri buruzko ikerlana egin berri du Deustuko Unibertsitateko lan talde batek, bertako Ikerkuntza eta Graduondokoen dekanoko ordeak zuzenduta. Horko emaitze- tan ikusten da, jende gehienak nahiz eta guztiz aldeko jarrera ez izan, asumituta daukala be- launaldi gazteek euskara ikasi behar dutela; euskaldun izateko baino, gehiengoa prest dago pixka bat ikasteko. Bestalde, er- daldunen artean euskararen prestigioa hobetu da eta elebita- suna askoz barneratuago dago, "ulertu ez arren, nire aurrean euskaraz egitearekin ez daukat problemarik" baitiote gehienek. Orokorrean, adostasuna eraku- tsi arren, konpromisorik hartzeko orduan jendeak ez du aurrera egiten. Bestalde, "arrosa kolo- reko etorkizuna" ikusten diote askok eta askok euskarari, "ume denek ikasten dutenez", "ofiziala denez" eta "erakun- de publikoek babesten dute- nez" moduko esaldiek.


TXOKOA

laztanak emoten...


Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguztana aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, OIAN, hillaeren 1ian urtebete egin zenduan-eta. Amama eta etxekuen partez.




Zorionak, HARITZ Otero Del Campo, martitzenian sei urte egingo dozuz-eta. Bidebarrietako amama, aitxitxa eta tioen partez.




Zorionak, ITXASO, atzo urtiak egin zenduaz-eta. Leyaristi eta Irazola famelixaren partez. Txintxua izan, laster Olentzero datorrelako.



Ongi etorri azaruaren 26xan jaixotako JON Etxeberria Txintxetruri. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JULE, atzo urte bi egin zenduaz-eta. Jarraittu beti bezañi alai eta muxu pillo bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JANIRE López Moreno, astelehenian urtebete egingo dozulako. Famelixaren partez.

zinea Coliseoan

4an, 22.00etan; 5ean, 17.00, 19.45 eta 22.30etan

6an, 17.00 eta 20.00etan; 7an, 20.30etan; 8an, 17.00 eta 20.00etan

"Spanish movie"

Zuzendaria: Javier Ruiz
Aktoreak: Alexandra Jiménez, Silvia Abril, Carlos Areces, Joaquin Reyes...



Espanian azken urteetan egin diren filme ezagunenei erreparoa egin eta barrea sortzea du helburu filmeak; Leslie Nielsen-ek ezagun egin duen zine motak "El orfanato", "Los otros" edo "Alatriste" izango ditu hizpide...

"Dos canguros maduros"


Zuzendaria: Walt Becker
Aktoreak: John Travolta, Robin Williams, Seth Green, Kelly Preston ...



Gizonetako bik 7 urteko bikiak zaindu beharko dituzte. Dibortziatu berria da lehenengoa, ezkongabea bigarrena; euren bizitzako negozioa egiteko prest zeuden, baina ume biek euren bizitzak aldatuko dituzte zeharo...

"Lluvia de albóndigas"

Zuzendaria: Phil Lord
Pertsonaiak: Sam, Flint, Alkatea, Brent...



Flint asmatzailea da eta bere amets nagusia pertsonen bizitza aldatuko duen zer edo zer asmatzea da. Orain arte ez du gauza larregirik sortu, baina bapatean lortu du: zerutik jatekoa jaustea dakarren makina asmatu berri du...

Ego-Ibar

"Despedidas"

Zuzendaria: Yojiro Takita
Aktoreak: Masahiro Motoki, Ryoko Hirose, Tsutomu Yamazaki, Tetta Sugimoto...



Daigo Kobayashik biolontxelo jotzen zuen orkestra baten, baina lan barik geratu da. Jaioterrira bueltatu eta kanposantuan hasiko da lanean. Inork ez du ulertzen, baina Daigok lan berriarekin orain arte ez zuen zoriontasuna lortu du...

"Cher Ami... eta ni"

Zuzendaria: Miquel Pujol
Pertsonaiak: Cher Ami, Zintzo, Alai...



1918ko urria. Gerra handiaren mehatxua Argonneko basoetara iritsiko da eta Cher Ami eta lagunak baserrian daramaten bizitza lasaia bertan behera geratzekotan da. Amerikako soldaduek laguntza behar dute, hori da euren betebeharra...

"Zorion perfektua"

Zuzendaria: Jabi Elortegi
Aktoreak: Anne Igartiburu, Aia Kruse, Alberto Berzal, Elena Irureta...



Ainhoa pianojole profesionala izan behar zuen, baina Bartzelonan izandako istripuak guztia jarri du hankaz gora. Istripua aurretik hasi berri zuen harremana ere maldan behera doa. Beldurrez betetako emakumea da...

horoskopoa

ARIES

Txikitako kontuak gogoratuko dituzu argazki zaharrak begiratzen. Zenbat aldatu diren gauzak, ezta? Bizi-poza emango dizu horrek.

TAURUS

Ipuinak besterik ez dira, asmatutako istorioak. Ez sinetsi ezer, zure burua gehiago nahastea da euren helburua eta ezin duzu hori egitea laga.

GEMINI

Buruan duzun proiektu garrantzitsu bat aurrera eramateko pauso handia emango duzu astelehenean. Politik bada ere, zure asmoak betetzen dira.

CANCER

Ez izan presa handirik gauzak egiteko orduan. Lasaitasunez hartzea da onena, bestela estresatu eta blokeatu egin zarelako. Badakizu, lasai!

LEO

Hainbat aldaketa zure bizitzan. Aldaketa txikiak, baina egunerokoan eragin handia izango dutenak. Ezin jasan aldaketok? Ohituko zara.

VIRGO

Dantzaria zara? Zapatu gauean dantzan ikusten zaituenak hori pentsatuko du. Nolako artea! Aprobetxatu gaueko talentu hori.

LIBRA

Gauzak zuzenean egin beharrean, zeharka egingo dituzu, buelta gehiegi emanez. Horrela gauzak gehiago nahastea lortuko duzu, besterik ez.

SCORPIUS

Egunero ikasten da zerbait berria eta martitzenean gauza garrantzitsua ikasiko duzu. Hortik jasotakoak ea hurrengorako balio dizun.

SAGITTARIUS

Buruko mina izango duzu hainbat egunetan eta umore txarrez ibiliko zara. Gogaikarria da, baina inork ez du horren errurik.

CAPRICORNIUS

Asteburu ahaztezina pasako duzu. Denbora askoan itxaroten zenuen momentua iritsiko da eta ederki aprobetxatuko duzu.

AQUARIUS

Baliteke gertatutakoaren errua zuk ez edukitzea, baina ez zaitez gehiegi haserretu. Besteen egoera ulertu behar duzu, enpatia gehiago izan.

PISCIS

Lau egun bikain igaroko dituzu gaurtik aurrera, baina opor txiki hauetatik bueltan gauzak okertuko dira. Gozatu oporrak gutxienez.

Barixakua 4

MUSEOA

16.00.- 'Santa Barbara Eibarko Museoa. Sarrera doan eta oparia. Armagintzaren Museoa (Portalea, 5. pisua).

KONTZERTUA

22.00.- Rock kontzertua, Akauzate eta Fernalia taldeen eskutik. Tallarra gaztetxean.

Zapatua 5

TITIRIJAI

17.00.- 'Dallae Story', Koreako Arte Stage San taldearen eskutik. Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

Domeka 6

ZINEMA EUSKARAZ

17.00.- 'Cher Ami... eta ni!'. Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

UMEENDAKO ZINEA

17.00.- 'Txori Urdin'. Sarrera: 2'80 euro. Amaña Kultur Aretoan.

Astelehena 7

SENDABELARREN FOROA

16.00.- Usu-belarraren inguruko hitzaldia. Portalean.

Martitzena 8

ZINEMA EUSKARAZ

17.00.- 'Cher Ami... eta ni!'.
20.00.- 'Zorion perfektua'. Sarrera: 3 euro. Coliseoan.

Eguena 10

IKASTEN

10.00.- 'Inteligencia emocional' (1. zatia), Adindu-ren eskutik. EPAn (Isasi, 39).

EGO IBAR ZINE KLUBA

17.30 eta 21.00.- 'Despedidas' (Zuz: Yojiro Takita). Sarrera: Euro bi. Hezkuntza Esparruan.

GOZOGINTZA IKASTAROA

18.30.- ...eta kitto!-ren gozogintza ikastaroa. Kamarroak elkarte gastronomikoan (San Juan kalean).

BIODANTZA

19.00.- Biodantza klase irekia (sarrera 10 euro). Arrateko Andra Mari (Urki) ikastetxeko gimnasioan.

KALEETAN KANTUZ

19.30.- Kaleetan Kantuz-erako entsegua. San Andres elizako lokaletan.

JAIOTAKOAK

- Beñat Castrillo Isasi. 2009-XI-24.
- Sergio Andrés Cruz. 2009-XI-27.
- Ane Saenz Ugalde. 2009-XI-28.

HILDAKOAK

- M^o Paz Errazu Gallastegi. 91 urte. 2009-XI-27.
- Jon Rocandio Duarri. 31 urte. 2009-XI-28.
- Vicenta García Prieto. 92 urte. 2009-XI-29.
- Dolores Alvarez Otero. 91 urte. 2009-XII-1.

DENBORAPASAK

SUDOKUA

9		8				2	1
1		2		4		3	6
	4	3	9		1		5
			6	3			
5	1				4	2	9
	3						
4	2	9		1			
			2				5
		5			9		

1	5	4	8	2	7	6	3
3	9	2	1	4	5	7	8
6	8	7	9	5	2	1	4
0	8	2	7	3	1	4	5
2	3	5	4	8	1	8	7
4	7	1	5	6	9	8	2
5	2	3	6	8	4	7	1
7	1	6	3	9	8	4	2
8	4	9	7	1	2	3	5

AURREKOAREN EMAITZA



erakusketak

- **Abenduaren 13ra arte**
ANDER AGIRREBEÑA. *Topalekuan.*
GEMMA MONREAL (pintura) eta **JAIRO BERBEL** (argazkiak) erakusketa. *Elgoibarko Kultur Etxean.*
 - **Abenduaren 1etik 31ra**
ARGAZKILARITZA DIGITALAren hastapen ikastaroan jardun dutenen argazki erakusketa. *Portalea tabernan eta Deporren.*



ANTZERKIA:
 'Dalle Story'. Abenduak 5, 17.00.
MUSIKA:
 Gabon Kantuz. Abenduak 13, 12.30.

laster salgai
MUSIKA:
 XIII. *Helmholtz kontzertua.* Abenduak 17, 20.30.
DOKUMENTALA:
 'Toros en Eibar'. Abenduak 18, 20.00.

ikastaroak

- **Gozogintza ikastaroa.**
 Noiz: Abenduak 10 eta 16, 18.30etan Kamarroak elkarte. Izen-ematea: ...eta kitto!-n (943200918 telefono zenbakia). Prezioa: 10 euro (5 euro bazkideentzat eta Berbetan-eko kideentzat).

lehiaketak

- **18. Amodiozko Gutunen lehiaketa.**
 Lanak aurkezteko epea: Urtarrilaren 7ra arte, Jardun Euskara Elkarte (Errotalde jauregia z/g. 20.570 Bergara). Informazioa: www.jardun.net edo 943763661 telefono zenbakian.
 - **'Aratosteak 2010 Eibarren' kartel lehiaketa.**
 Lanak aurkezteko epea eta informazioa: Urtarrilaren 15era arte, Pegoran.
 - **Antzez Artikulu eta Gidoientzako Narruzko Zezen Sariak.**
 Lanak aurkezteko epea: Urtarrilak 22ra arte, Hezkuntza Esparruan. Informazioa: eibarres@terra.es

famaziak

4, barixakua
 EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
 GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
5, zapatua
 EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
 GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
6, domeka
 EGUNEZ **Las Heras** (Sostotarren, 20)
 GAUEZ **Las Heras** (Sostotarren, 20)
7, astelehena
 EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
 GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
8, martizena
 EGUNEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
 GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
9, eguaztena
 EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
 GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
10, eguena
 EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
 GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
11, barixakua
 EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
 GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

telefono jakingarriak

SOS deiak112
 Pegora010
 Udaletxea943 70 84 00
 Portalea.....943 70 84 39
 Udaltzaingoa.....943 20 15 25
 Mankomunitatea943 70 07 99
 Debegesa.....943 82 01 10
 KIUB943 20 38 43
 Epaitegia943 03 34 00
 Iberdrola901 20 20 20
 Naturgas902 12 34 56
 DYA Larrialdiak.943 46 46 22
 Gurutze Gorria.943 22 22 22
 Mendaro osp.....943 03 28 00
 Anbulategia.....943 03 25 00
 Torrekua.....943 03 26 50
 Errepideak.....902 11 20 88
 Ertzaintza943 53 17 00
 Eusko Tren902 54 32 10
 Pesa902 10 12 10
 Taxiak.....943 20 30 71
943 20 13 25
 Alkohol.Anon. ..629 14 18 74
 Al-Anon/Alateen 650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 07.30, 08.50, 10.30, 13.30, 14.50 eta 18.30. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.30, 13.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara ordu. Zapateria eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapateria eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapateria: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutero: 08.50, 12.50, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.50 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.50 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapateria: 14.00. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapateria: 14.30. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.50 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.50 eta 19.50. **ERMUA-MENDARO.** Astelehenetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdiko). Zapateria-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era ordu. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdiko. Zapateria-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era ordu.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.13etatik 21.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 05.57etatik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.34. **EIBAR-DURANGO.** Egutero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Laneguna: 06.15etatik 20.15etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Laneguna: 05.47etatik 20.47etara ordu.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Ipuruan 2. pisua salgai. 3 logela, egongela, sukalde, komun bi eta ganbara. Berriztuta, bizitzera sartzeko moduan. Eguzkitsua. 225.000 euro. Tel. 679-332949.

– Legarren pisua salgai. 3 logela, egongela, sukalde eta komuna. Berriztuta. 26.000.000 pta. Tel. 659-687736.

– Txaltxa-Zelai ondoan pisua salgai. 3 logela, egongela, sukalde, komuna eta ganbara. Bizitzera sartzeko moduan. Kafekazioa. Tel. 675-700864.

1.2. Errentan

– Buhardila alokagai. Deitu 22.30etatik aurrera. Tel. 634-453097.

– Eibarren edo inguruan logela edo buhardila hartuko nuke alokairuan. Tel. 666-784526.

1.3. Konpartitzeko

– Neska batek pisua konpartituko luke neska arduratsuekin. Tel. 660-409539.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Txomon garaje itxia salgai. 45.000 euro. Tel. 644-403759.

3.2. Alokagai

– Legarre Behean marradun garajea alokagai. 75 euro hilero. Tel. 676-105492.

– Asua-Errekan (Urkizu inguruan) garajea alokagai. Handia eta trasteak gordetzeko lekuarekin. Tel. 630-391112.

– Egiguntarrenean garaje itxia alokagai. Tel. 678-426136.

– Elgetan lokal itxia alokagai. Autokarabanak gordetzeko. Lapurreta eta suteen aurkako sistemarekin. 116 euro hilean. Tel. 670-755644.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 679-866836.

– Mutila eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko. Tel. 664-067280.

– Emakumea eskaintzen da 14.00etatik 18.30etara garbiketarik egin edo nagusiak paseatzeko. Tel. 634-256471.

– Emakumea eskaintzen da 17.00etatik goizeko 10.00ak arte nagusiak zaintzeko. Tel. 662-247584.

– Neska eskaintzen da orduka edo asteburuetan edozein lanetarako. Tel. 669-152189.

– Neska eskaintzen da goieze edo asteburuetan nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 646-821678.

– Emakumea eskaintzen da asteburueta-ko gauetan nagusiak zaintzeko. Tel. 638-736539. Dori.

– Mutila eskaintzen da asteburueta-kamarero moduan lan egiteko. Tel. 658-719676. Enrike.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna edo externa. Esperientzia. Tel. 616-397348 edo 626-670510.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 638-482478.

– Mutila eskaintzen da banatzaile edo sukaldari laguntzaile moduan. Tel. 638-344377.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Ordutegi zabala. Tel. 630-531469.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna edo externa. Tel. 655-077394.

– Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Interna edo externa. Tel. 664-881835.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 651-836353.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 669-966611.

– Mutila eskaintzen da elektrizista (2. mailako ofiziala), igeltsero laguntzaile edo pintore moduan lan egiteko. Tel. 606-612834.

– Neska eskaintzen da arratsalde nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 634-661438.

– Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 943-530517 edo 645-366850.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 662-423898.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 636-302237.

– Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 686-435056.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Erreferentziak. Tel. 686-420642.

– Emakumea eskaintzen da orduka etxean edo ospitalean nagusiak zaintzeko. Tel. 654-837227.

– Emakumea eskaintzen da orduka etxean edo ospitalean nagusiak zaintzeko. Geriatria kurtsoa eginda. Tel. 669-311385 edo 646-235195.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 656-493864.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. 675-421933.

– Emakumea eskaintzen da arratsalde eta asteburueta-kamarero moduan. Tel. 671-972733.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 690-154754.

– Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 663-786976.

– Emakumea eskaintzen da arratsalde eta gauetz nagusiak zaintzeko. Tel. 672-076852.

– Neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. Tel. 627-163603. Vania.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 626-329979. Lourdes.

4.2. Langile bila

– Aerobic-eko klaseak emateko irakaslea behar da Ugan Klubean. Tel. 943-820452. ugan.klub@euskalnet.net

– Eibarko jatetxe batek neska behar du, 13.00etatik 16.00etara. Tel. 943-207019.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Fotokopiadora (zuri-beltz eta koloretan) salgai. Tel. 943-127191.

– Hiru plazatako sofa salgai. Narruzkoa. Egoera onean. Tel. 676-377959. M^o Jesus.

– Play-Station 1 salgai. Berri-berria eta prezio onean. 11 joko opari. Tel. 943-120030.

– Autorako umeen silla bi salgai. Maxi-Cosi, 18 kilora arte. 60 euro bakoitza. Tel. 629-946467.

– Marmolezko mahai biribil txikia, edarietzako karrotxo eta eskritorioa (0'82x0'60) salgai. Tel. 647-840027.

6.3. Galdu/Aurkitu

– 5 hilabeteko txakurra galdu da. Otsoa eta ratoneroaren nahasketa. Beltza, hanketan marroia eta zuria eta lepo zuria. Tel. 690-302761 edo Laurel & Hardy pu-bean.



Eibarko El Corte Inglés

Beste estilo bat etxerako



Enea-behar duzun guztianekin hantzeko eta adin-mudan jartzeko: abajua, trenaria, elektronikoa, sukaldaketa tresnak, alifanbrak, etxezko arropak, abeslari hartzeko sistemak... eta, berriko moduan, merkantzi onenak.



EGG GAIN, 7. EIBAR

ETENGABEKO ORDUTEGIA: 10 - 22. EROSKETA KAPTA, EPEKARO FINANTZAKETA/SALMENTA, ETXERA BIDALTzea, BIDAI AGENTZIA, ASERGIU ZENTROA, KAFETERIA... ETA EL CORTE INGLÉS-EN GARANTIA, KONFORME GERATU EZIK, OIRUA ATZERA ITZULIKO DA, GUREN HITZ EGITEKO: 901 122 122

TEORIKA ATERATZEKO IKASTARO TRINKOAK

Materia arriskutsuak / C.A.P.

Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko
nazioarteko agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak




Estaziño kalea, 8
Tel. 943 70 23 78

BERRIA

T. Etxebarria, 7
Tel. 943 70 23 84




ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

EUKi

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

KOMUNITATEAK